

Beroa, Gipuzkoako harrera familien elkartea da, harreran dauden haurren eta harrera familien eskubideak aldarrikatzea duena helburu. Hau lortu ahal izateko elkar-tes proiektu desberdinak jorratzen ditu.

03 BEROA Elkartearekin solasean:

-Beroa hotzaren eta epelaren laguna da, beroak gure gorputzaren barruan eroso sentitzen laguntzen digu. Konfiantza ematen digu beroak.

-Masailak gorritzen dizkigu, sorbaldak askatzen dizkigu, minak erantzten laguntzen digu eta... pozez izerditzen.

-Batzuetan hatzak, sudur puntak edo bihotz ertzak hozten zaizkigu... Eta... beroa behar izaten digu.

-Gure bizitzetan ere, beti ez da uda... batzuetan konplikatu egiten zaigu bizitzan eta horrelakoetan ere Beroa behar izaten digu.

Beroa, berriz ere geure baitara itzultzeko.

-Eta zer da Beroa?

-Besarkatzeko txokotxo bat.

Neguko arratsalde hotzetarako babesgunea.

Udako sargorian arnasmunea.

-Hazteko, hezteko eta unea bizitzeko unea.

-Hori da Beroa.

-Hori bakarrik?

-Hori, eta elkartzeko eta elkarbanatzeko gunea, topo egin eta jolastekoa.

Formakuntzan sakontzeko, saioak egiteko, topaketak prestatzeko, haur eta familien eskubideak zaintzeko, irteerak egiteko eta elkarri gure kontuak kontatzeko Txokotxoa.

-Txokotxoa? Trenaren hotsa dirudi horrek.

-Hala da bai, familia bakoitzak dauka bere txokotxoa, familia guztiek egiten dute txokotxo ezberdina, familia bakoitzak bidai ezberdina egiten du baina txokotxo-txokotxo, aurrera egiten laguntzen digu Beroa.



GUZTIOK BEHAR DUGUN BESARKADA

04 TXOKOTXOA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak eta Ahotsak: Alaia Martin Etxebeste eta Jon Martin Etxebeste

Txokotxo
txiki bat zuretzat.
Txokotxo
txukun (txiki) bat guretzat
Txokoa, mila musutxoko
txokotxoa

Errusiar mendian
dabiltza emozioak:
gure pozak, gure zalantzak,
ta pasioak!

Gelditzeko toki bat
behar du gure bizitzak
galtzen ditugunerako
gure etxeko giltzak

Txokotxo
txiki bat zuretzat.
Txokotxo
txukun (txiki) bat guretzat
Txokoa, mila musutxoko
txokotxoa

Bagoi berean goaz
inork ez daki nora arte;
geltoki bakoitza dugu
bidaiaren parte.

Samurtasunez zaindu,
mugimenduan ikasi
barrurantz eta kanporantz
elkarrekin hazi.

Txoko txiki bat zuretzat.
Mila musutxoko txokotxoa.
Txokotxo txiki bat zuretzat.

Txokolatzeko txoko
Txokotxo
txiki bat zuretzat.
Txokotxo
txukun (txiki) bat guretzat
Txokoa, mila musutxoko
txokotxoa
Txokotxo
Txukun bat zuretzat

Txokotxo
txiki txiki bat guretzat
Txokotxo, mila musu txoko
txokotxoa.
Txokotxoa.
Txoko.
Txoko.